



Mundu garbiaren alde dantzan.- Lasarte-Oria Zero Zabor taldeak antolatuta, Mundumob egitasmoaren barneko flashmob-a grabatu zuten larunbat eguerdian Okendo Plazan. Eguraldi ona lagun, 50 herritar inguru bildu ziren mundu garbi baten alde dantzan egiteko. Amaitzean, trotila pintxoak dastatu zituzten gorpuztak gogoz astindu ostein indarrak berreskuratzeko. "Zero zabor" helburu, itxura polita eta koloretsua hartu zuen Okendo Plazak goizeko 11:00etatik aurrera. Aurreko asteetan entseguak egiten aritu badira ere, azken unean jendea plazara hurbildu eta bizkor-bizkor ikasi ahal izan zituzten dantzaren mugimendu guztiak Enara Iregiren argibideak jarraituz. Behin urrats guztiak errepasatuta, hankaluzeak, haize-errotak eta mundu txiki baten laguntzaz grabatzeari ekin zioten. Asmoa, bakarra, "Eman hartu nahi duzun mundua" leloa lau-haizetara zabaltzea eta mundu berde eta garbiagoa posible dela aldarrikatzea.

3 GIZARTEA

ELA eta LAB-en greba deialdia

ELA eta LAB euskal sindikatuak maiatzaren 30erako greba deialdia egin dute. Honetan Euskal Herriak eredu politiko eta ekonomiko berria behar duela aldarrikatuko dute. Maiatzaren 30ean, Donostian manifestazioa nagusia izango da eguerdian, baina Lasarte-Orian ere izango da, mobilizaziorik arratsaldeko 18:00etan manifestazioa.

5 KULTURA

Alboka zilarrezko ezteiak ospatzen hasi da asteburuan

Alboka Abesbatzaren 25. urteurren ospakizunak hasi dira. Larunbateko kontzertuan, Erketz Dantza Taldea, Xumela abesbatza, Amaia Agirre bertsolaria, Andoingo Olagain txistulariak, Txalagore txalapartariak, Zero Sette eta ehundaka herritar izan zituen alboan.



6 KIROLA

Rekondo eta Rodriguez txapeldun

LOKEko atletak Jubenil, Junior eta kadete mailako Gipuzkoako txapelketako bigarren jardunaldian parte hartu zuten lehengo asteburuan. Ederki egin zuten lan Oskar Goikoe-txearen gazteek eta hainbat domina lortu zituzten. Maider Rekondo gazteak mailu eta disko-jaurtiketa probetan irabazle izan zen eta Itoitz Rodriguez berriz, 200 m. lasterketan.



IEFPS USURBIL GLHBI

Ate irekiak maiatzaren 11ean eta 18an

Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK



Mekanika



Elektrizitatea



Administrazioa



Mantenimendua



Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com

Adituak dio



Sebastian Kerejeta
Herri eragilea

1988ko ekainaren 24an, San Juan eguna, Daniel Adrian zuzendari, eskaini zuten Albokako aurkezpeneko emanaldia San Pedro elizan, izugarriko ikusmina, ilusioa eta arrakastarekin. Halako herritar mordoa elkartuta horrelako kultur egitasmo batean buru belarri murgilduta ikusteak izugarriko poza eta adorea sortu zigun herritarroi.

Ez ziren txantxetan hasi eta berehala bideratu zuten beren asmoa. Herritarren eskerrona eta mirespena lortzeaz gain, urte gutxian arrakasta eta ospe handia lortu zuten Lasarte-Oriatik kanpo ere. Esan behar, egun ere, Lasarte-Oriatarrok oso begiko dugula hogeita bost urte ondoren, eta herriz kanpo ere miresmen handiz hartzen dutela gure abesbatza, gu guztion harrotasunerako. Eskertze-koa da 25 urtetan gure herriaren alde egin duten lan oparora.

Herri bati, izugarriko mesedea egiten diolakoan nago horrelako talde batek, herrian duen eraginaz gain, gurea bezalako herri "gazte" bati, herritik kanpo eta atzerrian ere Lasarte-Oria ezagutzera eman eta bere izen ona zabaltzea.

Nork bere herria maitatzea, eta harro sentitzea, nire iritziz, suerte handia da eta herritarrei bizi poza ere ematen die. Hainbat une gogoragari bizitu ditugu arlo ezberdinetan, baina, adibide bezala, bi aipatuko ditut, jakinik asko direla.

Ez zait ahaztuko, Gipuzkoako herriarteko pilota txapelketako finala, Intza elkartearen eskutik, Lasarte-Oriak Donostian jokatu zuen eta egun berean frontoian, herritarren artean sortu zen herri-giroa. Ahalik eta gutxiago Lasarte-Oriatarrok Foru Aldundio areto nagusia bete zuteneko eguna Ttaku Kultur Elkarteari Antton Abbadie Saria eman ziotenean, bizitutako harrotasuna eta herri-giro atsegina.

Gure eskerrona, ongi egindako lanaren eredu den gure herriko Alboka Abesbatzari eta adore urte askoan bide horretan jarrai dezan.

Abeslari harrobia

Albokaren urteurrenaren aitzakiarekin kalera atera eta hainbat izan dira ezustekoak. Aipagarria da nola herritar batzuek ez duten Alboka bera ezagutzen "agian izena entzun bai baina herrian abesbatza zegoenik ez nekien" diote. Gehiengoak ordea ondo ezagutzen du koroak egindako ibilbidea eta atzerrian zein beste leku askotan kontzertuak eskainitakoak direla diote harrotasun puntu batekin. Eta hala da. Albokako kideek Lasarte-Oriaren izena herrialde askotara eraman dute eta hori bada harro egoteko arrazoi bat.

Ziurrenik etxean euren lana modu berezian erakusteko gogoak bultzatuta herriko beste taldeen parte hartzearekin larunbatean eskainitako kontzertu bikaina.

Aurrez Okendon entseguak ere egindakoak dira Alboka-

koak, duela hilabete batzuk, euren lana kalera atera eta herritarrek zuzenean ikusi eta entzun ahal izan zituzten maisuki abesten dituzten doinu anitzak.

Jasotakoagatik, nostalgia eragingo zuen askorengan entsegu hark. Herriko nagusiek faltan botatzen dute kantuan entzutea, "dagoeneko tabernetan musika edo telebista daude eta koadrilek ez dute abesten" pena bat dela diote, kantatzeko ohitura galtzen ari dela belaualdiz-belaualdi "bilobei ere ez zaie garai batean bezala, abesten. Telebista jartzen zaie". Alboka bezalako taldeen lanari esker kantatzea atsegin dutenek izango dute nora bideratu eta agian orain dantza, antzerki, futbolak erakartzen duen bezala, iritsiko da kantatzea "modan" jartzeko garaia.

Hitz eta pitz

Kantatzeko ohiturarik ba al da gaur egun?



Dani Marcos

Lehen kantatzen zen, baina gaur egun, jada, ez. Orain musika jartzen da. Orduan, ez zegoen gaur egun beste musikarik eta, aspaldi, asko abesten zen tabernetan. Txikiteoan ibili, ardoa edan eta kantatu egiten zuten lagun koadrilek. Orain taberna guztiek musika daukatenez, ez du inork kantatzen. Dena aldatzen eta galtzen ari da. Edo aldarazten gaituzte. Okerrera, beti.



Jesus Mari Egizabal

Lehen, bai, talde bat juntatu eta kantatu egiten zen: afa-lostetan, etxeetan... Herrian ikusten zen. Orain, ez. Familietan ere ez. Gazte gehienek ez dakite kantuan; kanpoko musika dute gustuko, beste era batekoa. Herriko musika galtzen ari da. Ez dut erreborik ikusten. Albokan abeslari izan nintzen, eta, hor ere, zaharrak badoaz eta berrikerik ez dator. Zaila da herri batean koroa izatea.



Kontxi Arteaga

Ona da kantatzea, horretarako elkartzea, abesbatzak izatea... Baina, egun, gutxiago biltzen gara lagunarte edo familian. Gainera, gazteak elkartzen direnean, ez dute kantatzen, beste kontu batzuan ari dira, beste zaletasunetan. Ez dago, ez gaizki, ez ondo: garaiak asko aldatu dira. Lehen, bilobei abesten zitzaizkien; gaur, marrazki bizidunak ikusten dituzte. Bizitza asko aldatu da.



Florentino Etxabe

Ohitura hori galdu da; orain, ez kantu, eta ez dantza, garai batean egiten genuen bezala. Soldadutza garaian pandero-jole batekin batera kantatzen nuen, nik, Irunen, afariaren truke. Lehen musika toki askotan jotzen zen, baina, tabernetan musika jarri zenean galdu zen. Orain, traka-traka besterik ez dago. Lehengo ohiturak aldatuta daude. Orduan, kantatu egiten zen.

Iruditan

Zilarrezko ezteiak



1989. urtean San Pedro elizan eskainitako kontzertuan Albokako kideak. Alboka

1977. urtean Landaberri ikastolako kide baten ekimenez eta Joxemari Telleriak bideratuta, gizon talde bat, San Pedro elizako abesbatzako kideak gehienbat, abiatu zen gero Alboka izango zen egitasmoa bilakatzeko. Felipe Lizarragaren zuzendaritzapean bide bat egin ondoren, Daniel Adrianek hartu zuen zuzendaritza. 1987ko azaroaren 3an egun zen, abesbatza mistoaren proiektuaren aurkezpen ofiziala Tedoso zinemaren, egungo Manuel Lekuona kultur etxean. 1988ko ekainaren 24an, San Juan egunean izan zen estreineko kontzertua. Ibilbide luzean Alboka Txiki eta Zandategi taldeak sortu dira.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttaku Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I.,

Maider Azumendi, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Mailu Arruti,

Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar,

Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Aradoz



Iker Urruzola izan zen ELAko kideen ordezkaria Hernaniko Biteri kultur etxean emandako prentsurrekoan.

Eredu propioa bultzatuko dute ELA eta LABek 30eko greban

Eskualdeko langileei kalera ateratzeko deia luzatu diete sindikatuek Eguerdian, Donostian elkartuko dira eta, 18:00etan, Lasarte-Orian

LAB eta ELA prentsurreko bana eskaini zuten ostegun goizean, Hernanin, langileei hilaren 30erako deitu duten greba orokorrekin bat egin dezatela eskatzeko. Bi sindikatuek aldarrikatu dute Euskal Herriak bere eredu bultzatu behar duela eta hori izango du maiatzaren 30eko greba deialdiak ardatz.



Jon Martin, Euken Villasante eta Josu Portu, LABeko ordezkariak, prentsurrekoan.

Jon Martin, Euken Villasante eta Josu Portu, LABeko ordezkariak osategunean prentsaren aurrean esan zuten, greba ez da soilik 'langabezia tasa oso handia eta egoera jasanezina delako, baita, jendartea nekatuta dagoelako, gaur egungo elite politiko eta ekonomikoek darabilten politika eta murrizketez'.

Euken Villasantek adierazi zuenez, "autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea oinarritzekoak dira guretzat. Honen arira, LABek eskubideen karta soziala eskatuko du Euskal Herrian, eta, greba, beste pauso bat izango da, elite politiko eta ekonomikoari argi esateko, hemen, herri bat dagoela, eta herri honek ezetz esaten diela, bai, beraien murrizketei, bai, beraien inposaketa guztiei".

"Euskal Herriak eredu propioa" da LABek grebara deitzeko erabiliko duen leloa. Hori indartzeko eta eskubide horiek lortzeko, bi izango dituzte borroka tresna indartsuenak, Villasantek jakinarazi zuenez: akordio sozial zabalak lortzea, batetik. Greba eta borroka soziala, bestetik.

ELA sindikatuek ere ostegunean eman zuten prentsurrekoa, honek, Hernaniko Biteri kultur etxean. Greba deitzeko arrazoietakoa bat, ELAko Iker

Urruzolaren ustez, zerga politika zuzenagoak ezartzeko alderdi politikoaren utzikeria da: "baztertu egin dute fiskalitate politika, eta zailtasunak izango dira ongi-izatea zaintzeko. Betiko arrazoiak dira, bestela, 2009tik seigarren greba da eta egoera ez da aldatu. Zoritxarrez arrazoiak geneukan orduan eta berdin jarraitzen dugu".

Eskaera politikariei

Iker Urruzolak eskaera zuzena luzatu zien Iñigo Urkullu lehendakariari eta Madrileko Gobernuari: "aurrekontuak ongi-izatearen zerbitzura jartzeko, hau da, pentsioen murrizketak ekiditeko, soldaten jaitseria aurre egiteko eta, azkenik, patronal edo lobby ekonomikoari aurre egiteko".

Alderdi politikoek baztertu egin dute zerga politika justuagoa ezartzeko bidea, Iker Urruzolaren iritziz: "Aurrekontuak oinarria dira, AHT, Erraustegi, Superportu eta horrelakoetan gatzatzen da dirua eta gero pertsonen ongi izaterako ez dago".

Gogor kritikatu zuen pentsioak kentzea edo murriztea, "bizitza osoan lan egin eta

gero, horrek txirotasunera daramatza aiton-amonak. Guk, aldiz, bide honetatik ez dugu pentsiorik izango".

Urruzolak ausart hitz egin zuen: "Patronala oso zikoitza da, dena nahi du beretzako. 10 urtean dirua irabazi eta ez dituzte banatu. Orain krisian gaudenean, egoeraz baliatzen ari dira, lan baldintzak okertu, soldatak jaitsi, lan jardunak luzatu... ondorioz, langabedian daudenak lanean hasteko aukerak gutxitu eta abar".

LAB sindikatuek bezalaxe, Euskal Herriaren eredu propioa aldarrikatu zuen Urruzolak. Grebaren bidez eskatuko diete erakundeei, Rajoyk inposatu nahi dituen eredurik ez ezartzeko, ez daitezela Madril morroi sumisoak izan, eta autogobernua bultzatzen duen eredu propioaren alde egin dezatela.

Maiatzaren 30ean, Donostiako eguerdiko manifestazioa zenbait auzotatik abiatu eta Bulebarrean amaituko da. Lasarte-Oriakoek Anoetan dute hitzordua. Bestalde, 18:00etan hasita manifestazioak egingo dira Lasarte-Orian, Usurbil, Hernanin eta Andoainen.

SORGIN JAIAK

Kale kontzertuetan parte hartzeko deialdia

Lasarte-Oriako San Pedro jaiak direla eta, ekainaren 28an arratsalderako, Sorgin Jaietako taldea "kale kontzertuak" antolatzen ari da. Ekintza honen xedea, arratsalde horretan herria herritarren musikaz edo antzezlanaz girotea da, "parte hartzea sustatzeaz gain, herritarren talentua ere ezagutzera eman ahal izateko," azaldu dute.

Hori guztia dela eta, herritar guztiei deialdia egin nahi die taldeak. "Euren ahotsak eta instrumentuak hartu eta parte hartzea animatzeko. Oraingoan ez dago jende aurrean aurkezteko aitzakiarik! Anima zaitzete!"

Interesatuak jar daitezela harremanetan, honako helbide elektronikora sorginjaiak@gmail.com-era mezua bidaliz.

KULTURA

Film batetarako casting-a asteazkenean Semblante Andaluzen

Lasarte-Oriako Semblante Andaluz elkarteak jakin arazi du, hurrengo asteazkenean, maiatzaren 15ean, 10:00etatik 14:00tara eta 16:20etatik aurrera, bere egoitzan "Ocho apellidos vascos" filmerako casting-a egingo dutela.

Filma ekainaren 1etik uztailaren 16ra grabatuko da Euskal Herriko hainbat puntutan, Zumaia, Leitza, Lasarte-Oria, Getaira, Zarautz edo Donosti eta ekoizleek 700 figurante behar dituzte.

Interesatuak daudenak emaila bidali behar dute argazkia atxikiz eta telefono zenbakia zehaztuz ochoapellidosvascos@temps.es helbidera edo informazio gehiago nahiez gero, 915 558 999 telefono zenbakira deitu behar dute. Zarautz eta Donostian ere probak egingo dituzte.



KULTURA

Herriko artisten lanak Jalgi eta Manuel Lekuona

Hilabete honetan, Jalgi Kafe-antzekian herriko Estudio del Pintor akademiako gazteen lanak ikusteko aukera dago.

Olio margo egindako lanak dira ikasleek aurkezten dituztenak. Natura hilak, konposizioak, erretratuak, paisaiak... denetarik ikusi daitezke erakusketan.

Bestalde, Manuel Lekuona kultur-etxean, maiatzaren 17ra arte, Lasarte-Oria Auzo elkarteak margo eta pintura saioretako ikasleen lanak erakutsiko dira.

Marraskiak, olioz egindako margoak edo arkatzez margoetako lanak daude ikusgai eta apagarria da "Villa Mirentxu" izeneko lana.

KULTURA

Literatura lehiaketetan parte hartzeko azken egunak

Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXVI. Literatur lehiaketa eta helduei zuzendutako XXVI. lehiaketarako lanak aurkezteko azken astea dugu hau.

Helduen lehiaketari dagokionez, kanpoko eta Lasarte-Oriako bizilagun diren euskarazko zein gaztelarazko idazleek parte hartu ahal izango dute eta mikrokontakizunak edo poesia lanak aurkeztu ditzakete.

Haur eta gazteen kasuan, Lasarte-Oriako gaztetxoek bakarrik hartu dezakete parte eta ipuina eta poesiak aurkeztu ahal izango dituzte euskaraz zein gaztelaraz.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak eta sariak www.lasarteoriasarean.eu-n argitaratu dira.

Aipatu legez, jatorrizko lanak aurkezteko azken astea da hau. Epea maiatzaren 17an 13:00etan amaituko da eta lanak Manuel Lekuona utzi edo postaz bidali behar dira epearen barruan.



Goian Carcedo eta Basterra, herriko Gabezia metal taldea; behean Asier Meataka DJ-a.



Danak Kidek eta Udalak antolatuta, Fabordon Hirukoteak kontzertua eskaini zuten Brigitarren komentuan, 50 bat lagunen aurrean.

Estilo guztietako musika

Musika klasikoa, heavy metala eta DJ-a aukeran

Herriko musika zaleek bazuten non aukeratu asteburuko kontzertu menuan. Ostiral arratsaldean Fabordon Hirukoteak emanaldia eskaini zuten Brigitarren kontzertuan, larunbat arratsaldean Gabezia eta Izunauk taldeen eskutik euskal heavy metala Bar de Maun eta egunari amaiera emateko Asier Meataka DJ-a aritu zen musika pintxatzen Siglo 20n.

Tomas Ruti fagot-joleak, Carlos Rosat Flauta-joleak eta Imanol Elizasu piano-joleak XVIII. XIX. eta XX. mendeetako Europa Erdialdeko musikagile ezagunen lau maisulan interpretatu

zizuten, kalitate handiz; Donizetti, Mozart, Beethoven eta Damarçen-ak hain zuten.

Bestalde, Guillermo Carcedo eta Julen Basterra herritarrrak partaide dituen Gabezia taldeak ere bere bigarren kon-

zertu jendetsua eskaini zuten Maun Donostiako Konploten Kuda taldearekin debuta egin osteko emanaldian.

Ez ziren bakarrik aritu ordea, euskal heavy ardatz hartuta, Zumaiako Izunauk taldeak ere jo baitzuen Mixta-perock elkarteak antolatutako metal jaialdi intimoan.

Kultur Kale Zikloaren barnean azkenik, Asier Meataka DJ-ak festa goizaldera arte luzatu zuten Siglo 20n musika elektronikoa pintxatuz.

Eskualdeko enplegu plana

Eskualdeko enplegu planaren barruan, natura turismoa sustatuz, formazioa eta lana uztartuko dituen egitasmoa aurkeztu zuen Ana Karrere Andoaingo alkateak eskualdeko gainontzeko ordezkariekin batera. Bertan egon zen Gorka Lizarraga Lasarte-Oriako enplegu arduraduna.

Eskualdeko enplegu planaren baitan sortu arren, egitasmoa eskualdetik haratago doan proiektuaren barnean

kokatzen dela aipatu zuten Aldundiak eta beste lurralde batzuetako turismo eragileek parte hartu dutelako elkarlanean.

Donostia-Iruñea bide berdea osatzeko lanetan ari dira denen artean, eta Leitzarangoa urrats bat gehiago da, bidea osatzeko loturak gartzten joango direlako.

6 lanpostu

Eskualdeko enplegu planaren

barruan, 6 gazte 6 hilabetez ariko dira bertan lanean.

Asteartetik igandera eta 9:00etatik 18:00etara irekita egongo da zentroa. Bertan, bizikletak alokatzeko aukera izango da, ibilbide gidatuak egin eta informazio bulegoa ere martxan jarriko dute.

Gainera, aurrerago tabernatxo bat ere zabalduko da eta udaran ordutegi zabalago batekin funtzionatuko dutela eman zuten jakitera.



Gorka Lizarraga eskualdeko udalen gainontzeko ordezkariekin Leitzaranean.

Zugandik gertu gaituzu Zu ere gertu behar zaitugu

TOKIKOMeko hedabideak gertu-gertukoak gaituzu. Zure inguruan gertatzen dena kontatzen dizugu. Zure hizkuntzan. Zure erara.

Lan ederra da eta, ondo egiten jarraitzeko, zu ere ondoan behar zaitugu. Makina bat erataria lagundu ahal diguzu: berriak emanez, albisteak idatziz, harpidedun edo bazkide eginez...

Gertu zaude?
Idatzi gertu@tokikom.com
helbidera eta hitz egingo dugul!

Hirinet.net
Berton
Bilbo Hiria Irratia
Prest!
Uk
Ukberri.net
Aikor
Aikor.com
Anboto
Anboto.org

Goiena Papera
Goiena.net
Goiena telebista
Pii-pilean
Plaentxia.com
Barren
Elgoibarren.net
Balelke
Balelke.com

Erlotz telebista
Uztarrria
Uztarrria.com
Goierri telebista
Galtzaundi
Galtzaundi.com
28 kanala
Karkara
Karkara.com
Antxeta Irratia

Hernaniko Kronika
Kronika.net
Noaua!
Noaua.com
Txintxarri
Txintxarri.info
Aiarri
Aiarri.com

Ttipi-ttpa
Ttipi.net
Xaloe telebista
Mailope
Xorroxin Irratia
Guaixe
Guaixe.net
Euskal Herria Irratia

TOKIKOM
TOKIKO
KOMUNIKABIDEEN
BATERAGUNEA



Kalejira andoingo Olagain txistularien eskutik herriko kaleetan barrena.



Itxura zoragarria zuen Okendok Udalexe berriko balkoitik ikusita, plaza jendez gainezka Alboka Abesbatzaren kontzertua entzuteko.

Albokaren zilarrezko ezteiak

25. urteurrena ospatzeko lehen kontzertua eskaini du

Erraz esaten da. Alboka Abesbatzak 25 urte daramatza herriko eta munduko bazterrek kantuz alaitzen 1987. urte urrun hartatik. Hortaz, zilarrezko ezteiak betetzen ari da aurten eta ospakizunei hasiera eman die larunbatean eskainitako kontzertuarekin. Erketz Dantza Taldea, Xumela abesbatza, Amaia Agirre bertsolariak, Andoingo Olagain txistulariak, Txalagore txalagartariak, Zero Sette eta ehundaka herritar izan zituen alboan Okendo Plazan eskainitako emanaldian.

Kalejira alai batekin hasi zuen arratsaldea Albokak, Andoingo txistulariek gidatuta herriko kaleetan barrena ibilbide motz bat eginez Okendora iritsi aurretik.

Bertan zain zituzten ehunka herritar, batzuk eserita eta besteak zutik. Goraino bete zuten herriko plaza haur, heldu zein edadetuek, benetan irudi ederrak utzi.

Kontzertu berezia

Ez zen ohiko kontzertua izan, ez ziren Alboka abesbatzako neska-mutilen ahotsak bakarrik entzun Okendoko ohol-

tzan, protagonista nagusiak eurak izan baziren ere.

Hasi bezain pronto, Erketzekoek ezpatez osatutako pasiloa egin eta banan-bana igo ziren oholtzara abesbatzako partaide guztiak, gero, agurra dantzatu zieten.

Xalbadorren heriotzean eta Araban Bagare kantu ezagunak ireki zuten abestien zerrenda, Xumela, Olagain txistulariez eta herritarren ahots inprobisatuz lagunduta.

Ostean, Amaia Agirre bertsolariak Albokari hiru bertso eskaini zizkion haren ibilbidearen errepaso egin eta urte hauetan egindakoagatik eske-

rrak emateko, "Zaldi baten bertsoak" doinuztat hartuta.

Zero Sette akordeoi orkestrak ere bere aletxo utzi zuen larunbateko kontzertuan, akordeoien doinuez lagunduta "Txoria txori", "Habanera", "Baga Biga" eta "Bok Spok" interpretatu zituen Albokak.

Amaiera ederra izan zen. Genika martxa ezagunaz agurtu zuten Okendo, Erketzeko dantzarien ikurrinaren kolore eta publikoaren txalo artean.

Esker ona guztiei

Gogoan eduki nahi izan zituzten halaber, 25 urte hauetan noiz edo noiz Albokan kantatzen aritu edota gaur egun partaide direnak, eurak gabe ezingo lukeelako abesbatzak aurrera egin.

Aipamen berezia egin zitzaizkien Joxean Sagarna, Mari Carmen Arratibel, Marian Olaizola, Pepi Aldazabal eta Beatriz Unanueri.



Amaia Agirre, Alboka Abesbatza, Zero Sette eta Txalagore goiko irudietan.

Argazki galeria eta bideoa txintxarri.info webgunean



Kristina Perez Abreu abesbatzako zuzendarietako bat (ezkerrean Montse Latorre) Andoingo txistulariek emandako oroigarria eskutan.



Erketz Dantza Taldekoek agurra dantzatu zieten Albokako partaideei.

LABURRAK.-

Santa Ana Pala txapelketako izena ematea

Lasarte-Oriako pala zaleetuek urteroko hitzordua dute Santa Ana Pala txapelketan eta aurtengoan ere, XXXII. edizioan lehiaketak ez du hutsik egingo.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bikoteek izena emateko epea irekita dute. Abend Kafe-antzekoian egin behar da inskripzioa eta bikoteek 30 euro ordaindu behar dituzte. Bestalde, antolatzaileen hitzetan, 10 euro osagarri bezala eskatuko zaizkie "aurreikusitako gabeko kontuentsat". Izena emateko azken eguna maiatzaren 16a, asteazkena izango da.

Gimnastek zorterik ez Gipuzkoako txapelketan

LOKEko gimnasta amateur federatuak Gipuzkoako finalean izan ziren. Maite Ruedaren neskek ez zuten egun ona izan, baina Garazi Gomezek brontzezko domina eskuratu zuen.

Garazi senior A mailan lehiatu zen eta borra eta xingolarekin egin behar izan zuen lana. Kadete B mailan, berriz, uztia eta borrekin egin zuten lan Ariadne Aguado eta Ainara Apeztegiak, 12. postuan eta 14. postuan amaitu zuten lehiaketa, hurrenez hurren. Aizpea Arroyok ere, jubenil A maila, 12. postuan amaitu zuen txapelketa uztia eta xingolarekin lan egin ostean.

Maite Rueda entrenatzaileak azaldu digunez, Euskal Ligara Garazi Gomez bakarka eta kadete eta jubenil taldeak sailkatuko dira. "Zaila izango da bakarkako beste bat bertan izatea".

Era berean, infantilek asteburu honetan Ordizian Gipuzkoako finalerako sailkapen saioa dutela gogoratu digu eta aukerak dituztela aurreratu du.

Squash txapelketako lehen fasea amaitu da

Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen duen XXV. Squash txapelketako lehen fasea ostiralean amaitu zen.

Antolatzaileek fasea amaitu baino lehen jakitera eman zigutenez, 5 jokalarik, A taldeko Kinin Calvo, Oswal Cañedo eta Iñaki García Muñoz eta B taldeko Iker Cañedo eta Xabier Amiano, dagoeneko txapeldunen faserako sailkapena eskuan zuten eta plaza bakarra geratzen zen izendatzeko. Beraz, Kinin Calvo iazko txapelduna eta Iker Cañedo finalistak berriro ere finalerako bidea egingo dute, baina ez dute lan erraza izango.

Maiatzaren 20tik aurrera txapeldunen faseari eta kontsola-ziokoari hasiera emango dio Udal Kirol Zerbitzuak eta ekainean jakingo da zein den XXV. edizio honetako txapelduna.

ARETO FUTBOLA.-

Aldaz H.K.-ek maila mantenduko du

Lehenengo astean, ISU Leiholak taldeak lehen fasea amaitu bazuen, oraingoan Aldaz H.K. taldearen txanda izango da. Aste honetan, asteazkenean, Laskurain taldearen aurka jokatu behar du azken partida. Garaipena beharrezkoa du, "sailkapenean hamaikagarren postuan mantentzeko" adierazi digu Oscar García Aldaz-eko entrenatzaileak.

Nazional b mailan lehiatu den taldeak aurtan ez du denboraldi ona izan entrenatzailearen hitzetan, "lesio ugari izan ditugu eta jokalarik gutxi-rekin joan gara partidatarra. Gainera, bi fitxari baja eman eta bi fitxaje egin behar izan ditugu".

Hala ere, pozik agertzen da taldeak egindako lana eta izan duen portaerarekin. "Azken partidari ongi ibili gara 9 puntutatik 7 lortu ditugu", azpimarratu du. Esate



Aldaz H.K. taldeak hamaikagarren postuan amaitu nahi du denboraldia asteazkenean.

baterako, aurreko jardunaldian Egintza taldeari 11-2 irabazi zion.

Jaitsieragatik kezkarik ez

Honetaz gain, aurtan jaitsierak kezkatzen ez dituela adierazi digu, "salbu gaude, gure mailan, sailkapeneko azken bi taldeak jaitsiko baitira".

IGERIKETA.-

Zilarrezko Tolosa eta Ibarburu


Buruntzaldeako igerilariak markak hobetu zituzten

Gipuzkoako Federazioaren Udarako bigarren sarian parte hartu zuten Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak lehenengo asteburuan eta Itsaso Tolosak eta Iñigo Ibarburuk zilarrezko domina eskuratu zuten.

TXINTXARRI

Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak maiatzaren 4an Anoetako igerileku luzean izan ziren Gipuzkoako Federazioaren Udarako bigarren sarian parte hartzen. Eta taldeko bi igerilari txapeldunorde izan ziren bigarren sari honetan, Itsaso Tolosa maila absolutuan eta Iñigo Ibarburu infantil mailan.

Borja Apeztegia entrenatzaileak adierazi digunez, "gure igerilari gehienek markak hobetu zituzten". Gainera, lehenengo urteko infantiletzat lehen aldian izan igerileku luzean eta "bikain aritu ziren" azpimarratu du.



Itsaso Tolosa, argazkian erdiko kalean, txapeldunorde izan zen GIF Sarian. BURUNTZALDEA IKT

Zilarrezko postua

Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak azaldu digunez sari honetan igerilari bakoitzak bi probatan parte hartu zuen eta horietan lortutako puntuen arabera, sailkapena orokorra egiten zen.

Honela, Itsaso Tolosak absolutu mailan 50 m. eta 100 m. bikar probetan egindako markak ezarri zituen txapeldunordetza.

Iñigo Ibarburuk berriz, 400 m. libre eta 50 m. libre probetan irabazi eta gero, bigarren postua lortu zuen infantilen artean. Gainera, Ibarburuk bere

marka 4 segundotan hobetzea lortu zuen 400 m. libre proban eta Espainiako gutxienez 4 segundora geratu zen.

Markak hobetzen

Honetaz gain, hainbat igerilari haien markak hobetu zituzten.

Aipatzekoa da, Ainara Garcia 100 bular proban egindako marka. Bere aurreko denborra 7 segundotan hobetu zuen eta "infantil mailako Espainiako Udarako Txapelketarako gutxienezko markara asko gerturatu zen, segundo eta erdira gerturatz".

ATLETISMOA.-

Rekondo eta Rodriguez Gipuzkoako txapeldun

Maila desberdinetako Gipuzkoako txapelketako saioak martxan dira. Lehenengo asteburuan, LOKEko jubenil, junior eta kadeteak Donostiako Miniestadioan izan ziren eta Irunen berriz, Landaberri ikastetxeko alebin eta infantil mailako atletak eta lan ederra egin zuten, urrezko hiru domina, zilarrezko bi eta brontzezko hiru ekarri zituzten herrira.

Txapeldun bikoitza

Azpimarratzekoak dira, Mai-der Rekondok lortutako bi tituluak. Lasarte-Oriako atleta jaurtiketa probetan, mailu eta disko-jaurtiketan hoberena izan zen bere mailan.

Eta Oihana Igariz kadeteak proba beretan lortutako bi dominak. Bigarren izan zen disko-jaurtiketa proban eta mailuan, berriz, hirugarren.

Baita Itoitz Rodriguez usurbildarrak 200 m. lasterketan lortutako garaipena eta nesken lasterketan, Maria Eugiren zilarrezko postua ere.

Hauetaz gain, Eneritz Busto kadetea 300 m. hesi-lasterketan eta Yeray Veroniz jubenila 200 m. lasterketan podiumeko hirugarren mailan izan ziren. Eta Ane Galardi 200 m. lasterketan bere mailako laugarren izan zen.

Lehen postuetan

Bestalde, infantil eta alebin txapelketan, Landaberriko gazteak lehen postuetan izan ziren. Nerea Eugi eta Xalba Otxandorena 60 m. hesi-lasterketako finalean izan ziren. Nerea laugarren izan zen eta Xalba seigarren. Asier Olmos gaztea ere ederki ibili zen, luzera jauzian bosgarren amaitu zuen proba.

Agenda

Osteguna 16, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxean



Westernari begirada

"Django desencadenado" spaghetti western-a ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Erreferentzia eta metazinemaren jolasez baliatuta Quentin Tarantinok Django esklabo ohi baten istorioa azaltzen du film honetan. Jamie Foxx, Leonardo DiCaprio edo Christoph Waltz-ek parte hartzen dute filmean. Oscar sarietarako bost izendapen izan zituen eta bi sari eskuratu zituen, gidoi hobereana eta Waltz-ek bigarren mailako aktorearena. Sarrera, leihatilan 4,65 euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 19, 17:00etan

Haurren zinea atalean, "Oz, un mundo de fantasía" filma ikusgai izango da. Sarrera, leihatilan 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 19, 19:30ean

Helduen zinea atalean, Quentin Tarantinoren "Django desencadenado" filma ikusgai izango da Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrera, leihatilan 5,85 euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz

Musika

ORBELA BELARDENA

Ostirala 17, 20:00etan

Soul Kitchen taldearen soul, funk doinuak eta cover-ak entzuteko aukera izango da. Kultur Kale Zikloko ekimenaren barruko ekintza.



Batukada

LASARTE-ORIA ERDIGUNEA

Larunbata 18, egun osoa

Euskal Herriko Igo batukada Topaketa izango da. 12:30etatik aurrera Taupada Samba, ZolZongo, Beriba Samba eskola eta Dinbi Banda batukadek haien eritmoa erakutsiko dute Lasarte-Oriako auzoetan barrena. Ekitaldi nagusia 18:00etan izango da Okendo plazan.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 18, 20:00etan

"Uztartuz lana" aurkeztuko du estreineko Allur dantza taldeak. Internet bidez, 3,24 euro; leihatilan, 3,50 euro.

Ostirala 24, 20:00etan

Organik dantza antzerki taldeak "Incorpore sano" lana aurkeztuko du. Interneten sarrera, 5,4 euro. Eusko Jaurlaritzako Dantza bultzatuz zirkuituko ekitaldia.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Astearte 7-Ostirala 31

Estudio del Pintor ikasleen margolanak ikusgai izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteazkena 8-Ostirala 17

Lasarte-Oria Auzo elkarte margo eta marrazki ikasleen lanak ikusgai izango dira, 18:00etatik 21:00etara.

Andoain

Antzerkia

BASTERO KULTURGUNEA

Larunbata 17, 20:30ean

Kukuka-k "Sahara, isiltasunaren ahotsak" antzezlan eskainiko du. Sarrera aurretik, 3 euro; leihatilan egunean, 5 euro. Hurria Sahara elkarte antolatuta.



Herritarren txokoa

San Pedroetako irudia

Lasarte-Oriako Udalak gogora arazten du San Pedro Jaietako kartel lehiaketan parte hartzeko azken egunak direla hauek.

Teknika librea da, modu digitalean zein eskuz aurkeztu ahal dira lanak, nahi adina lan aurkeztu ditzake pertsona berberak eta bete beharreko baldintzak bi dira: kartelean San Pedro Jaiak Lasarte-Oria 2013 esaldia txertatzea da, eta oinarrietan eskutako neurrietan lana aurkeztea. Saria 350 euroakoa da.

Oinarriak eta informazio gehiago, lasarteoriasaren web orrialdean aurki daitezke.

Lanak aurkezteko maiatzaren 15a izango da azken eguna.

Islada Ezkutatuak taldeak testigantzak behar ditu

Maiatzaren 22an 75 urte beteko dira Ezkaba mendian, Iruña inguruan dagoen San Cristobal fuertetik 800 presoren ihesaldia gertatu zela.

Islada Ezkutatuak taldea jakinaren gainean dago presondegi horretan lasarteoriatar bat baino gehiagok

jasan behar izan zuela hango bizimodu latza.

Oroimenaren alde lan egiten ari den taldeak dei egiten die presondegi horretan egon ziren senitarteko edo ezagunen bat duten herritarrei haiekin harremanetan jar daitezten. Asmoa kasuak ezagutu eta zerrenda bat osatzea da. Lasarte-Orian denboraldi bat bizitako edo eskualdean bizitako pertsonen testigantza ere jasoko dituzte.

Honetarako 695 756 565 zenbakira deitu behar dute.

Mus txapelketako afaria Lasartearra elkarteak

Lasartearra elkarteak antolatzen duen XXXVI. Mus txapelketako afaria ekainaren 1ean, larunbata, izango da. Ohikoa den legez, elkarte kide eta lagunek parte hartu ahal dute afari honetan.

Afari gozoa dastatu nahi duten herritarrek maiatzaren 28ra arte, egun hau barne, dute Lasartearra elkarte egoitzan, Erribera kalea 10 atzea, izena emateko.

Sos del Rey Catolico-ra irteera

Biyak Bat elkarteok hilabete honetan

Sos de Rey Catolico-ra irteera antolatuko du. Bertan, San Esteban eliza eta Sada-ko jauregia bisitatuko dituzte.

Txangoa maiatzaren 23an izango da eta autobusa goizeko 8:30ean aterako da elkarte aurreko geltokitik.

Irteerak 35 euro balio ditu elkarte-ko bazkideentzat eta 40 bazkide ez direnentzat. Izena ematea astelehenean hasiko da 10:30etik 12:30era.

Musika eskolako aurrematrikula

Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolan aurrematrikula egiteko garaia da.

Musika eskolak eskaintza zabala du, haurrentzako txokoak, hizkuntza musikala, armonia, abesbatza, instrumentu ugari eta helduentzako taldea. Eta aurten gainera txistua edo esku soinu instrumentu bezala aukeratzeko duten herritarrek %20ko beherapena izango dute prezioan.

Aurrematrikula Manuel Lekuonaren egingo da 09:00etatik 13:00etara eta azken eguna maiatzaren 17a izango da.

Kultura sailak gogora arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hiru ordu-lari, bost betaurreko graduatu, patinete bat, bi mugikor, haur baten berokia eta motxila bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Uztaro Kooperatiba

Badira urte batzuk Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian martxan hasi zenetik. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bat izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarte lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gus-tuko dutenentzat atek zabalik dituz-tela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Taxio Arrizabalaga Gazteria, Festak eta Kirola zinegotzia

"Gazteria aktiboa dugu herrian"

Gaztelekuak gazteen beharrak modu naturalean asetu behar dituela dio zinegotziak

Gazteria zinegotzi bezala proiektu garrantzitsuen da Gazteleku Taxio Arrizabalagarentzat. Honek gazteen behar eta eskaeretara egokitu behar duela azpimarratzen du eta hilabeteak aurrera, gazte beteta eta instalazio guztiak martxan ikustea da bere nahia. Eraikuntza hornitzeko erabilitako diru kopuruaz harro hitz egiten du ere zinegotziak.

Maidar AZURMENDI

Gazteria zinegotzia pozik dago Gaztelekuaren martxarekin. Oraindik oso goiz da baina espazio berriak harrera ona izan duela iruditzen zaio. Gaztelekuaren erabilera diseinatzeko lan asko egin dela dio eta proiektuak izango dituen ildo nagusiak azaldu dizkigu.

Gaztelekuak ireki da. Gauzatu da zure nahietako bat?

Niretzat proiektu garrantzitsuen izan da. Kargua hartu eta hasieratik landu behar izan duguna. Lan gehiena eskatu du, buru belarri jarrita, urte beteko lana eskatu du. Guk ardura 2011ko ekainean hartu genuen eta eraikina eginda zegoen arren, oraindik tramitazio guztiak egiteke zeuden. Bukatzerako 2012ko otsaila zen.

Ordutik dena izan da lana. Eraikinak arazoak eman ditu eta hauek konpontzen ari gara oraindik, altzariak erosi, espazioak definitu eta zerbitzuaren diseinuak denbora eskatu du.

Pauso handia izan da zabaltea eta herritarrak hasi dira erabiltzen baina guk oraindik herritarrekin Gaztelekuaren erabilera zein izan behar duen definitu behar dugu.

Arazo teknikoak konpondu eta ikasturte berriari begira gaude.

Zein arazo daude?

Argi toma berezi bat ekarri behar izan da eta urarekin

arazoak egon dira besteak beste.

Eraikin berria da. Zer dago eta zenbat diru gastatu da txukuntzen?

Esan bezala eraikina eginda zegoen. Saiatu gara gastu arrazional bat egiten eta aurretzen. Eraikina oso polita da baina funtzionaltasunean, arazoak sortzen dira.

Guk eraikina horrela jaso eta aurrera egin dugu oztopo-ak-oztopo. Gaztelekuak hornitzeko 150.000 euroko aurrekontua zegoen eta 15.000 euro gastatu ditugu, garestiena musika ekipoak izan dira beste 20.000 euro. Aurretzutakoa asko da.

Bestalde aurtengo aurrekontuan nerabeen zerbitzuaren kontrataziorako 62.000 euro daude baita programaziorako eta inbertsio txikiak egiteko diru poltsatxo bat ere.

Zer da Gaztelekuak eskaini behar duena?

Herriko gazteen beharrak modu naturalean asetu behar izan behar duena da.

Gaztelekuaren proiektua garatzen egin dugun eskeman bi talde nagusi banatu ditugu adinak kontutan hartuta.

Gure kezka nagusia hau zen, Gazteriarentzako eraikina da baina guztiak hemen lekua edukitzeko nola antolatu? 12-17 urte bitartekoentzat nerabe zerbitzua garatu dugu eta 17-30 urte bitartekoentzat beste planteamendu bat eduki behar duela ikusi eta espazioen erabilerari eta programazioa, edo eskaintzari lotuta.



Taxio Arrizabalagaren erroka Gaztelekuaren erabileran dago.

Eraikinak berak zein aukera ematen ditu?

Oraintxe 12-16 urtera begira bi txoko dauzkagu, gerora zerbitzua osatuko dutenak eta momentuz begiraleak daude jardura batzuk egiteko.

Txoko bat dago etxeko lanak eta egiteko, Gazte ikastaroen eskaintza martxan da eta ikastaro dinamika berria.

Bestetik espazioen erabilera dago. Bilerak, dantza aretoa eta tailerrak erabilgarri daude. Entsegu gela eta antzokia prest egon arren, eraikinaren arazo batengatik ezin dira erabili. Ez gukeke legea beteko eta konpontzen ari gara. Aurreikuspen gutxi egon zen bere momentuan.

Gazteak hurbiltzen al dira? Zein kezkekin etortzen dira?

Orain arte etorri direnak, gaztetxoek, arratsaldea pasatzeko leku bat nahi dute, hemen joko batzuk daude eta hor ibiltzen dira.

Beste batzuk etxeko lanak egitera datoz, 18 urtetik gorakoek berriz, asmo konkretuak ekarri dituzte eta espazioak eskatu dituzte.

Lehenengo hilabetearen balorazioa oso positiboa da niretzat. Egia da irekiera egunean batez ere gaztetxoek hurbildu zirela baina dagoe-neko herritarren artean zabaldu da Gazteleku martxan dagoela eta hasi dira etortzen.

Zinegotzi gazteena zara. Laguntzen al du horrelako proiektua garatzeko?

Nik uste dut baietz beste ikuspegi bat aportatzen dudala hala ere, nire burua erdian ikusi dut. Adibidez, gertatu zait arlo teknikoan zerbait kudeatzeko zailtasunak daudela ikustea baina gazte bezala, horrela kudeatu behar dela argi ikustea.

Ezin zara Gazteria zinegotzi izan gazteekin harremana izan gabe eta aldi berean zinegotzi izan teknikoan esperientzia eta lana gabe.

Programazioari dagokionez zertan pentsatzen ari zarete?

Gazte ikastaroen gain, gunearen helburuetako bat alde bateatik espazioak herriko gazteak erabiltzea eta Gazteria departamentutik, honen barruan programazio bat gauzatu, musika,

antzerkiak, zine forumak, bideo proiektuak... baina hau egiteko gazteen elkarlana nahi genuke.

Herrian gazteek izan al dute orain arte nahikoa eskaintza?

Nire ustez, pertsonalki, eskaintza nahikoa ez da egon. Egon dira egitasmo konkretuak gazteen artean euskara sustatzeko besteak beste.

Udaletik, indarra orain arte behintzat, arreta berezia eskatzen zuten gazteei zuzendutako zerbitzuan jarri du hortaz asko dago egiteko.

Hala ere, Gaztelekuaren egitearen arrazoia suposatzen dut herrian beharra zegoelako edo eskaria zegoelako erabaki zela. Niretzako gazteekin gazteentzat dena lantzea oinarritzakoa da eta agian orain arte ez da horrelakorik egon.

Esperientziak erakusten du gazteei uzten gazteei eurei antolatzen, iniziatiba hartzen... euren erantzuna oso ona dela eta gazteria aktiboa dugula herrian. Aukera eman behar zaie.

Parte hartzea aipatzen duzu programazioa garatzeko baina bada ohiturak?

Herria parte hartzearen kulturaren oinarrituta egon behar du. Egia da batzuetan espero duzun erantzuna gero ez dela gauzatzen baina orain arte oso gutxi landu da herritarren artean eta nire ustez lan hori egon behar da.

Euskarari zein leku eman diezue Gaztelekuaren baitan?

Gaztelekuak hiru zutabe ditu, bat euskararen normalizazioa 12-25 urtekoen artean Lasarte-Orian %95 euskaraz ondo edo oso ondo daki. Bigarrena, elkarrizketa interkulturala edo integrazioa litzateke, oinarritzakoa Gazteleku delako etorkizuneko gizartearen isla. Hirugarrena sexuen arteko berdintasuna.



• Material elektrikoa
• Argiak
• Etxetresna elektrikoak

• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Beharpen handiak gau-mahairako lanparetan !



BEHARPENAK

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521